



PRENTSA OHARRA, “FRANKISMOAREN BIKTIMEI LAGUNTZA EMATEKO PROGRAMAREN LEGEZKOTASUNAREN ANALISIA” TXOSTENARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Eusko Legebiltzarraren Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontuen Batzordeak hala eskatuta, “Frankismoaren biktimei laguntza emateko programaren legezkontasunaren analisia” txostena mamitu du. Txostena HKEEren Osokoaren kideen gehiengo onetsi dute.

Lanaren mamia programaren dekretu arautzaileen aldetik laguntzen arautegia bete dela aztertzea, deialdiak zuzentzea, emakidetan legezkontasuna bete dela eta diru-laguntza lerroaren kudeaketa gastuak berrikustea izan da.

Laguntza hauek arautzen dituen 280/2002 dekretuak onuradun aitortzen ditu Amnistiaren 46/1977 Legean aurreikusitako suposamenduetan sei hilabeteko epean edo luzeagoan askatasun gabezia pairatu zuten haiek, ezarritako laguntzetarako lehenago irispiderik izan ez zutenak.

Hasiera batean, 8.680 eskabide aurkeztu ziren eta horietatik 5.968 kasutan uko egin zitzaizen, batik bat, askatasun gabeziako denbora egiaztatuko zuen dokumentazio ezagatik eta “egiazko askatasun gabetze” ez irizteagatik Soldadu Langileen Diziplinako Batailoietan (SLDB) egindako denborari.

Arartekoak esku hartu ondoren -Gerra Zibileko Biktimen Elkarteak-GEUREAK hala eskatuta- eta SLDBetan egindako egonaldia askatasun gabetzeko aldi modura aitortzen duen Konstituzio Auzitegiaren epaiaren ondoren, Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Saila dokumentazio egiaztagarria aurkitzeko lanetan inplikatu da eta eskubide berriak sor litzaketen ukapenak berrikusteari ekin dio. Honela, bada, beste dekretu bat onetsi zen 2006an, dokumentazioa epez kanpo aurkeztu zutenei edo bere garaian aurkeztu ez zutenei beste aukera bat ematearren. Eta azken dekretu honek SLDBetako egonaldia askatasun gabetze egoeratzat hartzen du.

2005eko abenduaren 31ra arte aitortutako laguntzen zenbatekoak 26 milioi euro egin ditu. Kopuru honek Dekretu arautzaileak ezarritako muga gainditzen du, 21 milioi eurokoa baita. 2006an, berriz, dekretu berriaren eskutik, 10 milioi euroko laguntza osagarriko diru zenbatekoa balioetsi da.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

HKEEK ez du laguntzak emateko espedientei dagokienez inongo ez-betetzerik azaleratu.

Programaren kudeaketari dagokionez -2005eko abenduan 1,2 milioi euroko kostua izan duena-, ezargarria zaion arautegiaren gaineko hainbat ez-betetze azpimarratu dira, batik bat publizitate eta lehia printzipioak gorde gabe hainbat kontusailen kontratazioari dagozkionak.